

DBUS-EK 2015EKO MEMORIA AURKEZTU ETA AURREIKUSPENAK **HOBETZEN DITUEN BALANTZEA EGIN DU**

Dbusen Administrazio Kontseiluak 2015eko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak eta Erantzukizun Sozial Korporatiboari buruzko Memoria onartu ditu. Memoria dagoeneko web orrian dago eskuragarri: www.dbus.eus

Dbusek urtean zehar bai enpresaren barruan bai kanpoan egin dituen ekintzen laburpen zehatza da dokumentua. Memoriak alderdi ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak hartzen ditu bere baitan, eta, besteak beste, eskainitako zerbitzuarekin lotura duten alderdiak, egindako jarduketak, autobusen flotari buruzko datuak eta Dbus partaide izan deneko proiektuak zein 2015ean egin dituen ezarpen teknologikoak zehazten ditu.

Era berean, bidaia kopuruak eta garraio titulu desberdinen erabilera aztertzen dira, bai eta Konpainiak izan dituen emaitza ekonomikoak eta eskuratu dituen sariak ere.

Horrez gain, memoriak bereziki azpimarratu ditu Dbusek alderdi sozial, ekonomiko eta ingurumenekoekin zein bere langileekin hartutako konpromisoaren isla garbia diren kudeaketa etikoa eta garapen iraunkorra; kudeaketan eta zerbitzuaren kalitatean bikaintasuna lortze aldera enpresak egindako apustuaren baitan sartzen dira horiek.

Bidaia kopurua handitzea

Donostiarren erreferentziazko garraioa da Dbus. Donostiako biztanle bakoitzak 167 bidaia egin ditu batez beste urtean hiriko garraioan, eta zifra hori Europan dagoen handienetako bat da, bai eta Espainian biztanle kopuru antzekoa duten gainerako hirietakoa baino askoz handiagoa ere.

2015ean bidaiari kopuruak gora egin zuen, eta bidaiak 28.243.454 izan ziren guztira. Hazkunde hori iaz hartutako neurri ugarietara eta martxan jarritako jarduketara esker izan da, esaterako hauei esker:

- Flotan 4 autobus hibrido berri eta Euro 6 teknologiadun 3 mikrobus gehitu ziren, eta horiekin une honetan 127 ibilgailu dira flotan, autobusen batez besteko adina 7,56 urtekoa izanik.

- Zerbitzuak hobekuntzak egin dira, hauek zehazki: 42-Aldapa-Egia linea sortu da; 43-Anoeta-Igara linea sendotu da linea propio gisa; eta 33-Larratxo-Intxaurren-Antiguo-Berio zabaldu da Illarra aldean zerbitzua emateko.
- Erabiltzaileei autobusa non dagoen eta hurrengo geldialdia non egingo duen jakinarazteko autobusen barruan duen sistema berri da Dbuseko autobus linea guztietan. Sistema berriak ematen duen informazioa osatuagoa eta errazagoa da, eta hizkuntza bietan dago.
- Dbusen web orriaren bitartez eta app ofizialaren bidez autobusen iritsiera orduen berri emateko zerbitzua, bai eta kontsultak egiteko gainerako sistemak ere.
- Hainbat jarduera egin dira gizartearekin komunikatuta egoteko eta gizartean parte hartzeko, esaterako Gabonetako haurren marrazki lehiaketa, "Dbus eta Gabonak" izeneko; udako argazki lehiaketa, "#DbusUda" izeneko; linea guztiei buruzko eskuorrien argitalpena; eta elkarte eta kolektibo batzuekin egindako elkarlana.
- Erabiltzailearen esperientziaren azterketa, Design Thinking metodologia baten bitartez, zeinaren bidez bidaiaren zikloa aztertu den bidaiarien profil desberdinen ikuspuntutik.
- Gidatze ekonomiko, seguru eta ekologikoari buruz eta giza harremanei buruz langileei eman zaizkien ikastaroak.
- Barne komunikazioari buruzko politika indartu da, eta Konpainian Giza Baliabideak hobetzeko plan bat ezarri da.

Gehien erabilitako lineak eta ordaintzeko moduak

Pasa den urtean zerbitzuko 6.279.687 kilometro eta 437.855 ordu eskaini ziren, eta batez beste horien %97,57tan zerbitzua puntuala izan zen. Hauek izan ziren gehien erabili ziren lineak:

- 28.Amara-Ospitaleak: 4.713.539 bidaia
- 13.Altza: 3.629.377 bidaia
- 5.Benta-Berri: 2.995.940 bidaia

Linea hauek berriro eskuratu dute AENORen kalitate egiaztagiria, zeina Bidaiarien Garraio Publikoari buruzko UNE-EN 13816 arauaren arabera ematen baita. Gaur egun, arauak ezartzen dituen konpromisoak egiaztagiria duten lineetan ez ezik autobus flota osoan eta Konpainiaren eguneroko jardunean ere ezartzen dira. Dbusek eskaintzen duen zerbitzuaren kalitatean eta Dbuseko erabiltzaileek egiten duten balorazio onean ikusten da filosofia hori.

Ordaintzeko moduari dagokionez, azpimarratzekoa da bidaiarien %90,76k deskontuak izan zituztela egindako bidaia bakoitzeko.

Kontuen balantzea


Enpresan egindako kudeaketari esker udalaren ekarpena aurrekontuan aurreikusitakoa baino txikiagoa izan da, azken urteetan beheranzko bilakaera progesiboaren ildotik joanda.

DIRU SARRERAK	2015
Sarrerak emandako zerbitzuengatik	18.743.183€
I+D proiektuak	663.443€
Finantzakoa ez den ibilgetuaren diru laguntzen eta bestelakoak.	3.098.234€
Finantza diru sarrerak	345€
Udalaren ekarpena	11.458.858€
SARRERAK GUZTIRA	33.154.063€

GASTUAK	2015
Hornidurak	3.562.401€
Pertsonen gastuak	23.549.629€
Beste ustiapen gastu batzuk	3.814.017€
Ibilgetuaren amortizazioa	2.227.262€
Finantza gastuak	754€
GASTUAK GUZTIRA	33.154.063€



Zehazki, 2015ean Donostiako Udalaren ekarpena 0,41 zentimokoa izan da bidaiako; Donostia hiriaren ezaugarri antzekoak dituzten gainerako hirietan garraio kolektiboek eskuratzen dutena baino nabarmen txikiagoa da zifra hori, hiri horietan udalek garraio kolektiboegi egiten dieten ekarpena 0,90 €-koa baita batez:



2015ean lortutako aurrezpenekin (1.458.858€-ko emaitzak eta 13.085.893€-ko aurrekontua) inbertsio berriak egin ahal izango dira, adibidez Kotxetegiak handitzeko. Inbertsio hori 2017an egitea aurreikusita dago. Dbuseko instalazio berriak ondoko lursailean eraikiko dira eta 6.000 m² inguru hartuko dituzte. Instalazio berri horiekin egun aparkatzeko dauden arazoei egingo zaie aurre eta autobus zerbitzu berriak sortu ahal izateko etorriko diren autobus berriak hartu ahal izango dira.

Era berean, pasa den urtean Dbus hainbat proiektu europarretan parte hartzen hasi zen, esaterako hauetan: Manbus, EBSF-2 edo REPLICAT. Proiektu horiek guztiak autobus garraio publikoa efizienteagoa eta erakargarriagoa egitera bideratuta daude.

Hiri garraioko enpresarik onena saria

“Urteko Enpresak” izeneko sarien XXIII. edizioan Dbus “2015. urteko enpresa” aukeratu dute bidaiarien hiri garraioaren kategorian. Saria Autobuses&Autocares aldizkari espezializatuak ematen du. Sari horrekin kalitatea aitortzen zaio Donostian bidaiarien erabilera orokorrerako dagoen garraio publiko erregularreko zerbitzuari.



Dbusek ahalegin handia egiten ari da hiria gero eta hobea izan dadin, gero eta bizigarriagoa, gizatiarragoa eta iraunkorragoa. Hiriaren erronka estrategiko horretan, funtsezko zutabea dira autobusa eta garraio publikoa erabiltzen duten pertsona guztiak.

Informazio gehiagorako, kontsultatu www.dbus.eus webgunean edo deitu 943 000 200 telefonora.

